



DARWIN ETA GU
Jose Mari Pastor



Arazoa

Abestia 1988an hedatu zuen Eddy Grantek, Hegoafrikan apartheid-a indarrean zegoen garaletan. *Gimme hope Jo'anna* kanta diktadura arrazistaren kontrako ikurra izan zen, himnoa. Johannesburgo botere zuriaren eta Sowetoko erresistentzia beltzaren arteko talka islatzen zuen. Bake gogoia zerion testuari, baina hitzek borrokaren beharra nabarmentzen zuten, Desmond Tutu aipatzen zutenean: «*Jesusen alde lan egiten duen predikariak, gizon bakezalea den artzapezpikuak ere badakite askatasunaren aldeko borrokalariek nagusituko zaizkiola oso indartsua denari*».

Eddy Grantek laudatzen zituen askatasunaren aldeko borrokalariek ez ziren etxean geratu, negar batean otoitzean. Erregimen arrazistaren kontra altxatu ziren. Kanta esperantza-

rako deia zen, baina horrek ez zuen errealtatea ezkatuzen: Nelson Mandelaren borrokaren aldeko mezua zela azaldu zuen Eddy Grantek. Mandelak eta bere erakundeek, politikoak zein erakundeak, diktaduraren kontra eginiko borrokaren aldekoa.

Hego Euskal Herrian ere diktadura izan genuen. ETA jaio zen. Jose Luis Alvarez Enparantza izan zen erakunde armatuaren sortzaileetako bat. Hala ere, Txillardegik ez zen horretara mugatu. Txillardegik hizkuntzalaria eta idazlea izan zen: euskara batuaren aitzindari eta bultzatzaileetako bat, euskal literaturaren berritzailea. Orain, Donostiako Udalak hari aitortza egitea nahi du Txillardegik Udala Liburutegia plataformak. Udalak ez du argi ikusten kontua. Arrazoiak? ETA-ren sortzailea izan zen Txillardegik, eta hori «arazoa» da.

Alkateari erantzun dio Joseba

Alvarezek, Txillardegiren semeak: «Eneko Goiari ahaztu zaio berak izendatutako Udaleko bere Gabinete Burua ETApm-ko kidea izan zela, EAJn dauden beste ETA-pm kide ezagun batzuk bezala. Baina ez dira Txillardegik. Arazoa ez da ETA».

Zein da orduan arazoa, ETA ez bada? Arazoa, agian, hau da: pertsona batek bere ibilbideari uko egin ez izana. Iragana onartzea, kontraesanak izan eta huts egin arren, beste edozein pertsonak bezalaxe. Arazoa, agian, koherentziari eustea da: denboraren joanean borroka armatuaren egokitasunari buruz kritikoa agertu arren, Txillardegik ez zuen zalantzan jarri botroka mota horren beharra testuinguru historiko jakin batean.

Espainiak ez daki irabazten. Nahiago du garaitu eta umiliatu. Halaxe mintzatu da ERCKo diputatu Ernest Maragall, Kataluniako Legebiltzarrean. Antzekoa da EAJren jarrera borroka armatuarekiko. Garaitu eta umiliatu egin nahi du. Orain ez da nahiko egindako mina aitortzea. Orain borroka hura injustua izan zela entzun nahi dute jeltzaiek. Nabardurarik gabe. Armen aukera gutzid bidegabea izan zela, hasiera-hasieratik. Alegia: euskal herritarrek torturatzen zituena- ren kontra egitea injustua izan zela. Zuzenena etxean otoitzean

ten geratzea zen. Francoren kontra armak hartu zituzten euskaldunak injustuak izan ziren. Hori aditu nahi dute, euren ordurako jarrera pasiboak, salbuespenak salbuespen, moralkeriaz justifikatu eta justu agerrarazteko.

Hain zuzen ere, horixe kritikatu zuen Txillardegik hainbat arfikulutan. EAJren pasibotasuna diktaduran. Franco hil ostean gogor gaitzetsi zuen burukideen saldukeria Espainiaren aurrean, erregimen autonomikoa garatu, eta haien botere esparrua kudeatzeko. Zer ez zuen pentsatuko Txillardegik, bizirik balego, EAJ Kataluniari bidaltzen ari zaiola mezuari buruz: badakizue, katalanak, itzul zaitezte normaltasunera, betiko egoerara; otzan eta meneko jokatu, legalitate espainiarraren barruan. Makur zaitezte eta lurpera ezazue zeuen independentzia nahia, gu geure autonomian lasai bizi gaitzen. Noizbait, behingoz, Espainiaren barruan eroso sentituzko.

Arazoa, agian, hau da: Txillardegik askatasunaren aldeko borrokalaria izan zela, Euskal Herri euskaldun, libre eta justuaren aldekoa. Diktaduraren aurka altxatu zen; ez zen etxean geratu, negar batean otoitzean. Borrokaren aldeko hautua egin zuen, eta ez zitzaion damutu. Eta hori, batzuentzat, barkaezina da.

Ez zen etxean geratu negar batean, otoitzean. Borrokaren aldeko hautua egin zuen, eta ez zitzaion damutu. Eta hori, batzuentzat, barkaezina da



GORKA RUBIO / ARGONZI PRESS

GEROA ZUGAN

‘Geure oinarrietatik’ manifestuarekin bat egin du Kontseiluak

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak babestu egin du *Geure oinarrietatik* manifestua. Paul Bilbao idazkari nagusiak bilera egin du Beatriz Zabalondo BERRIA Taldeko lehendakariarekin, Iban Arregi kontseilari ordezkariekin eta Pilar Kartzada administrazio kontseiluko kideekin. Ekainean hamabost urte beteko ditu BERRIAk, eta BERRIA Berri taldea eratu dute, egitasmoa hedatzeko eta geroa ziurtatzeko. BERRIA lagun gehiago lortu nahi dituzte, eta horrekin bat egin du Kontseiluak.

berria
BERRIA